



Zer erosten dugu?

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- MATEMATIKA.
- HIZKUNTZA.
- ARTE HEZKUNTZA

HELBURUAK

- Behatzea eta datuak bildu eta sailkatzea.
- Kontsumo-ohiturak aztertu eta horien gainean eztabaidatzea.
- Kontsumoa hobetzeko alternatibak proposatzea.

IKASTALDEA BITAN banatuko dugu, azterlan xume bat egiteko. Talde bat ikastetxetik hurbilen dagoen supermerkatu edo *hiper*-era joango da, eta bestea,

dena euro batean edo *euro batetik gora* saltzen den denda batera joango da. Taula batean, honako behaketa honen ondorioak irudikatuko dituzte:

Salgaien zerrenda

ESKAINZA BEREZITAKOAK	MAIZEN EROSTEN DIRENAK	BEHARREZKOAK	EZINBESTEKOAK

- Zer salgai daude eskaintzan? (Gauza asko eskaintzen zaizkigu, baina eskaintza bereziko produktuei begiratuko diegu, hau da, apalategi-buruetan kartelez iragartzen direnei).
- Zer produktu erosten dira maizen? (Kutxa erregistratzaileetan ikus dezakegu hori, produktuak banan-banan pasatzen dira eta).
- Produktu guztietatik, zein dira, zuen ustez, beharrezkoak?

- Eta beharrezko deritzezuen horietatik, zein dira ezinbesteko, eta zein ez dira hain beharrezko? (galdera horri erantzun aurretik, gogoratu Hirugarren Munduko jendearen bizimodua).
- Emaitzak taldean eztabaidatu eta gero, gure sailkapena (grafiko baten bidez), kontsumo-ohiturei buruzko gogoetak, eta kontsumoa hobetzeko proposamenak mural batean irudikatuko ditugu.